

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Frantziak Aljeriari 50 urte beranduago minen mapa opari

Aljeriako ekialdeko eta mendebaldeko mugetan artzaintzan, egur bilketan edo paseoan dabilen edonor, gaur egun oraindik lehertuta hankaz gora joan daiteke, bertan dauden hiru milioi minetako batek oinpean eztanda eginik. Frantsesek duela mende erdi utzitako opariak dira.

JEAN-LOUIS GEORGIN JENERALAK, Frantziako armadaren buru nagusia denak, opari berezia eraman dio urriaren 20an Aljerreko armadan kargu bera daukan Ahmed Gaïd Salah jeneralarari: Aljeriako ekialdeko eta mendebaldeko mugetan frantsesek 1956 eta 1959 artean ipini zituzten milioika minen karta edo mapak.

Frantziako Gobernuak, beharbada, keinu horrekin orekatu nahiko zuen Nicolas Sarkozy presidentek biharumunean Marokora egin behar zuen bidaiaren eragina. Magrebeko geopolitikan Aljer eta Rabat beti ari dira lehian. Eta Aljeriako berripaperek joko horiek ahaztu eta garrantzia berezia eman diote Georgelin jeneralak egindako keinuari.

Frantsesez egiten den informazioaren artean erreparatuta, Aljerreko *El Watan* egunkariak titulu hau ipini dio: "Parisek aljeriarren eta frantsesen arteko harremanak 'minagabetu' nahi ditu". Testu barruan galdetu du ea Frantzia zeren zain egon den mende erdiz aljeriarrentzako hain inportantea zen informazioa emateko.

L'Expressionek lerroburuan ipini du: "Pertsonen kontrako minak ekialdean eta mendebaldean. Historiari beste estalki bat kendu diote". *Libérték* berriz honela du titulatu: "Frantziak minen mapa sekretua eman ondoren, maitearo berria Paris eta Aljerren artean".

Denak ere frantsesek 1956 eta 1959 artean Aljeriako mugaldeen artean eraiki zituzten "Morice" eta "Challe" defentsa lerroez ari dira. Urte haietan, Marokotik eta Tunisiatik sartzen ziren —edo haietara ihesi zihoazen— gudari aljeriarren joan-etorria oztopatzeko eraiki zituzten bi lerrook. Tunisiako muga 460 kilometrotan barrena luzatzen zen bata eta bestea berriz Marokoko frontierako 79 kilometrotan.

Frantsesek lerro horiek alanbre hesiz eta pertsonen kontrako minaz hornitu zituzten. Kalkulatzen da 11 milioi paratu zituztela. Gero gerra bukatu zen, frantsesek eta aljeriarrek bakea sinatu zuten eta minak kentzeko lan luze eta nekeza hasi zen. Baina urte luzeotan frantsesen maparik gabe egin behar izan dute lan Aljeriako armadako artezilariek. Zortzi bat milioi mina desaktibatu omen dituzte urteotan. Baina gainerako hiru milioiak bertan daude, pertsonaren edo abereren batek noiz zanpatuko zain, lehertzeko.

Milaka pertsona hil dituzte minek mende erdi honetan Aljerian. Ezin esan seguru zenbat. Barne Ministerioak aitortzen du 4.000 hil direla eta 13.000 zauritu. Komunikabideek, aldiz, askoz kopuru handiagoak darabiltzate. Batzuen kalkuluetan 30.000 dira hilak eta besteenetan 40.000. Zaurituak, proportzio berean. Oraindik ere, asteoro hiltzen da edo ahuntzen bila dabilen

Argazki handia "Jilali" sinatzen duen batek dauka ipinita Interneten. Aljeriako herrixka bateko mutikoa erakusten du, astoa hartuta azokarako bidean doala. Oraindik ere haurrak, gaztetxoak eta artzainak hiltzen dira herrialde hartan, frantsesek duela mende erdi lurpean utzitako leherkarietakoren batek eztanda eginik. Irudi txikia Aljerreko *El Watan* egunkariak ipini zuen Georgelin jeneral frantsesak urriaren 20an bertara egindako bisitari buruzko kronikaren osagarri. Buteflika presidentearen tankera daukan militarra mapa berriarekin dabil minaz betetako lur eremuan, eta kolonialista itxuraz jantzitako tipoak diotsa bazterretik: "Plano horiekin jakingo duzu oinak non jarri". Beste aldean, artzain itxurako bi gaztetxoetako batek dio: "Hori, 45 urte lehenago esan behar ziguten!".




gazteren bat edo jolasean ari den haurren bat Aljeriako herrixkaren batean, duela 50 urte soldadu frantsesek utzitako minek zapartarazita.

Hala ere, galdutako hiru milioi mina horiek lokalizatzeko premia ez diete piztu agintarici tarteka lehertuta hiltzen diren herritar gaixoek, gaurko kamikazeen atentatuek baizik. Matxino islamistek leherkaria, besteren artean, lurpetik ateratako minetatik ere eskuratzen omen dute. Minategien mapak entregatzea gehiago da frantsesen aldetik segurtasun mailako laguntza, antzinako zorra kitatzea edo gizalegezko keinua baino.

"Morice" et "Challe" lerro famatuak

Aljeriako gendarmeriak azken hilabeteotan *myyahidin* islamiarrei 108.000 mina kendu omen dizkie, eskuetan edo gordelekuetan atzemanda. Horietako bakoitzak 100 gramo TNT darma, eta fabrikatu zirenetik mende erdia pasatuagatik oraindik lehertzeko moduan daude.

Aljerreko gobernu oso kezkatuta dago Magreb osoan indartu den arma trafikoarekin. Bere analisisen arabera, antzinatik tabako edo kafearen kontrabandoan ari ziren taldeak azken aldiaren arma trafikoan ere nahastu omen dira. Horregatik, matxino islamiarren kontrako borroka daukan lehentasunez, Marokorekiko muga 23 kontrol postu berri



ari dira eraikitzen, eta Aljeriaren muga osoan ugarituz joango dira holako eraikuntzak.

1956an lehenbiziko minak ipintzen hasi ziren militar frantsesei nork esan behar zien tramankulu haiek 2007an beste matxino batzuek "birziklatuko" zituztela, noren kontra eta orduan frantsesek ehizatzen zituzten soldadu aljeriarren kontra.

Ordurako independentzia lortuta zeukaten Marokok eta Tunisiak. Biotan zeuden militar frantsesak, 125.000 lehenean eta 55.000 bigarrean, baina ez zuten lortzen Rabateko eta Tuniseko Gobernuek ALN armada aljeriar errebeldearen ibilbidea oztopatzerik. Militar frantsesei ondoko bi herrialdeetara egiten zieten ihes pertsegitutako aljeriarrek.

Pédron jeneralak ekin zion mendebaldeko muga inpermeabilizatze lanari. Hesi xume batekin estreina eta gero hesia elektrifikatu eta ondoko lurraz minaz betez. Baina hori hasiera besterik ez zen izan.

Parisko gobernuan defentsako ministro zen André Morice-k 1957an erabaki zuen mugen itxiera orokortzea. Mendebaldean, Marokorekiko frontieran, Pédron jeneralak doi-doi hasitako hesi sistema kilometro luzez handitu zen. Hesi eta mina multzoek ez zuten beti mugaren lerroa zehatz-mehatz jarraitzen, militar frantsesen iritzirako errepide, mendi edo erreken lerroak erabilerrazagoak izanik. Horregatik, hesiaren eta mugaren arteko auzo eta herriak hustu eta bertako biztanleak kaserna eta kanpamenduen

inguruetan bildu zituzten. Gauza bera edo gogorragoa egin zuten ekialdeko mugan, Tunisiarekikoan.

Honetan bereziki ahalegindu zen Challe komandante frantses berria, Salan famatuaren ordez etorria. Challek Tunisiako mugako barrajeari beste hesi bat gehiago erantsi zion.

Frantziak Aljerian erresistentziaren kontra erabilitako kontraintsurjentziaren baitan garrantzia berezia izan zuten "Challe" et "Morice" bataiatu diren defentsa lerroek. Guy Pervillé historialari frantsesak idatzi duenez, hasieran independentista aljeriarrek ez zioten garrantzia berezirik eman mugako hesi eta mina multzoari. Baina hesia bukatu eta bere osoan martxan jarritakoan, eraginkorra gertatu omen zen, Aljeria barruko gudariak eta auzoan babestutakoak elkarrengandik isolatzeko.

Leherkari horien mapak garaiz emanda seguruenik bizi asko salbatuko ziren ondorengo 50 urteetan. *El Watanek* honela idatzi du: "Galdetu dezakegu ea zergatik Frantziak hainbeste urte pasa eta ez dituen Aljeriako armadaren esku gaur arte utzi agiriok, mugaldea minaz garbitzeko lanetan hainbeste lagunduko zutenak. Aljeriako agintariak gogor kritikatu dute hori". Frantziari aurpegiratu diote pertsonen kontrako minak direla-eta Otawan sinatutako ituna ez errespetatu izana.

Ikusten da potentzia handiek ondo gordetzen dituztela beti beren kartak, komeni den egunean ateratzeko. Duela 50 urteko mina zaharren kartek ere balio dezakete jokoan. ■

<http://www.argia.com/nethurbil.php> helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



K A L I T A T E A

Produkturik onenak,
Zinkunegi Optikan

Aukerarik zabalena
betaurreko graduatu,
ukipen-lente,
audiofono eta eguzkitako betaurrekoetan.

ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 4 - 20004 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net
TEL.: 943 420 624